Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKIA, 2023ko OTSAILAREN 2koa, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA, "DONOSTIAKO 20. GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIAN" PARTE HARTZEAGATIK GRADUKO IKASLEEK HAUTAZKO KREDITUAK LORTU AHAL IZANGO DITUZTELA ADITZERA EMATEN DUENA

I. Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzak Donostia Kulturarekin batera "20. Giza Eskubideen Zinemaldia" antolatuko du 2023ko apirilean zehar.

II. Horrelako ezaugarriak dituen jardueraren batean parte hartuz gero, HAUTAZKO KREDITUAK lortu ahal izango dituzte Graduren bat egiten ari diren ikasleek (hau da, 1393/2007 Errege Dekretuak araututako ikasketa planetakoak).

Akademia Antolakuntzako errektoreordearen 2012ko maiatzaren 21ean argitaratutako (EHAA, 119. zk., 2012ko ekainaren 19a) Erabakiaren bidez argitara emandako graduko ikasketetan kredituak transferitzeari eta onartzeari buruzko Arautegiaren 11.4 a) artikuluaren arabera, HAUTAZKO KREDITUAK amortizatu daitezke, unibertsitateko errektoreordetzek antolatutako prestakuntzako kultura jarduerak (ikastaroak, mintegiak, biltzarra, etab.) egiteagatik.

Jarduera horietarako honako baliokidetasun hau ezartzen da: 1 kreditu 25 orduko.

III. Errektoreordetzek antolatutako jardueretan parte hartzeagatik Graduetako unibertsitate ikasle guztiek hautazko kredituak amortizatzeko aukera izango dute, zein titulutan matrikulatuta dauden alde batera utzita.

Hori dela eta,

RESOLUCIÓN DE 2 DE FEBRERO DE 2023, DEL VICERRECTOR DE CAMPUS DE GIPUZKOA DE UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, POR LA QUE SE DA PUBLICIDAD AL HECHO DE QUE LA PARTICIPACIÓN EN EL "20º FESTIVAL DE CINE Y DERECHOS HUMANOS DE DONOSTIA/SAN SEBASTIÁN" SERÁ VÁLIDA PARA LA OBTENCIÓN DE CRÉDITOS OPTATIVOS PARA ALUMNADO DE GRADO

I. El Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa organizará junto con Donostia Kultura durante el mes de abril de 2023 el "20º Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián".

II. La participación en una actividad de tales características es válida para la obtención de CRÉDITOS OPTATIVOS por parte del alumnado que curse algún Grado (es decir, planes de estudio regulados por el Real Decreto 1393/2007).

En virtud del artículo 11.4 a) de la Normativa sobre reconocimiento y transferencia de créditos en los estudios de grado, publicada mediante Resolución de 21 de mayo de 2012 de la Vicerrectora de Ordenación Académica (BOPV nº 119 de 19 de junio de 2012), es posible amortizar CRÉDITOS OPTATIVOS por actividades culturales formativas (cursos, seminarios, congresos, etc.), organizadas por los diferentes Vicerrectorados de la Universidad.

Para estas actividades se establece la equivalencia de 1 crédito por cada 25 horas.

III. Las actividades organizadas por los Vicerrectorados serán válidas para amortizar créditos para todo el alumnado de la Universidad, con independencia del Grado en la que estuvieren matriculadas.

Por todo ello,

Egiaztatzeko Kode Segurua	iXP8wwBCEtS3dmouajQH3Q==	Egoera	Egun-orduak
Nork Sinatua	Agustin Erkizia Olaizola	Sinatua	02/02/2023 13:22:07
Oharrak		Orrialdea	1/2
Egiaztatzeko Urla	https://app.ehu.eus/verifirma/code/iXP8wwBCEtS3dmouajQH3Q%3D%3D		
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		

Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

ERABAKI DUT:

Lehena.- Aditzera ematea Graduko ikasleek hautazko kredituak lortu ahal izango dituztela baldin eta Gipuzkoako Campuseko errektoreordetzak Donostia Kulturarekin batera 2023ko apirilerako antolatuko "20. Giza Eskubideen Zinemaldian" Epaimahaikide bezala parte hartzen badute.

Parte hartzaileek 30 orduko arduraldia izango dutela aurreikusten da.

Bigarrena.- Antolatzaile taldeak ezarriko du garatuko diren jardueretan ikasleei jarraipena egiteko modua, eta ikasleei ziurtagiri bana emango die, honako hauek adierazita: egindako jarduerak, horiei dagozkien orduen kopurua, antolatzailea, datak, lekua, eta erabaki honen igorpenaren organoa eta data.

Hirugarrena.- UPV/EHUko ikasleek, horretarako ezarritako epeetan, matrikulatuta dauden ikastegiko idazkaritzan aurkeztuko dute ziurtagiri hori, eta, dagozkion izapideak egin eta prezio publikoak ordaindu ondoren, kredituak beren espedienteei gehituko zaizkie.

Donostia, 2023ko otsailaren 2an

RESUELVO:

Primero.- Dar a conocer que la participación como miembro del Jurado en el "20º Festival de Cine y Derechos Humanos de San Sebastián" que será organizado por el Vicerrectorado de Campus de Gipuzkoa junto Donostia Kultura para el mes de abril de 2023 será válida para la obtención de créditos optativos por parte del alumnado de Grado.

Se estima que la dedicación de los participantes en la actividad será de 30 horas.

Segundo.- El equipo organizador establecerá el seguimiento del alumnado participante en las actividades que se desarrollen y entregarán a los y las alumnas un certificado con la indicación expresa de: las actividades realizadas, horas correspondientes a las mismas, quién las ha organizado, fechas de las mismas, lugar de celebración, así como fecha y órgano de emisión de la presente resolución.

Tercero.- Con este certificado los y las alumnas de la UPV/EHU se presentarán, en los plazos señalados al efecto, en la Secretaría del Centro en el que estén matriculadas para que, tras la realización de los trámites pertinentes y el abono de los precios públicos correspondientes, sean incorporados a sus expedientes.

En San Sebastián, a 2 de febrero de 2023

AGUSTÍN ERKIZIA OLAIZOLA
UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordea
Vicerrector de Campus de Gipuzkoa de UPV/EHU

Egiaztatzeko Kode Segurua	iXP8wwBCEtS3dmouajQH3Q==	Egoera	Egun-orduak
Nork Sinatua	Agustin Erkizia Olaizola	Sinatua	02/02/2023 13:22:07
Oharrak		Orrialdea	2/2
Egiaztatzeko Urla	https://app.ehu.eus/verifirma/code/iXP8wwBCEtS3dmouajQH3Q%3D%3D		
Araudia	Txosten honek kopia elektroniko autentikoaren izaera du, eta jatorrizkoaren baliozkotasun eta eraginkortasun administratiboa du (39/2015 Legea, 27. art.).		